

# berbarotarra

BERBARO

elkartea

## DURANGOKO KAFE ANTZOKIA GARAI BERRIAK, ERRONKA BERRIAK



Ezkerretik eskumara: Igor Arzuaga, Jon Ander Ubeda, Josu Zabala, Ubane (Gaztelupeko Hotsak), Andoni Egaña, Beñat Gaztelurrutia, Xabier Amuriza, Rafa Rueda, Joseba Tapia, Petti, Igor Elorza, Asier Serrano, Mikel Urdangarin, Unai Iturriaga

Badira dozena bat urte Durangoko hainbat euskaltzale batu eta Berbaro Elkartea sortu genuenetik. Hasierako helburua garbia zen: gure herrian bertako hizkuntzak zuen egoera kezagarriari erantzun egokia ematea. Durangoko herrian euskarak bizi zuen erabilera urria, prestigio falta eta begirune eskasean laburbildu dezakegu orduko kezka. Joan den mendeko azken hamarkada hartako erantzun

### Denetariko proiektuak gauzatu ditugu, orain arte, herriko eragileekin

egokia, berriz, Durangoko herritar guztiak euskararen aldeko bidean batzeko erronka izan zen, edozelako taldekerien gainera. Durangar guztiak euskararen bidean

jartzea zen euskaltzaleon eginbeharra.

Hamarkada horretan zehar hainbat eta hainbat dira herriko zein eskualdeko eragile, erakunde eta talde ezberdinekin elkarlana landuz aurrera atera ditugun proiektu eta ekintzak: zerbitzugintzan, aisialdian, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan, kulturegintzan, kirolean... Eta hamar urte horietako ekintza eta proiektuok, zeinek

**Egungo egoera ikusita, handiagoa behar du euskaltzaleon ahaleginak**

gehiago zeinek gutxiago, eman dituzte euren fruituak. Durangaldeko euskaltzaleok pozik esan dezakegu gure hizkuntzaren egoera hobea dela orain gure herrietan. Ez dela alperrekoa izan gaur arteko ahalegina.

### Erantzun berriak behar ditugu


Hala ere, euskara lako hizkuntza txikienezako gero eta handiagoak dira mehatxuak gaurko mundu globalizatu eta orojale honetan. Galdera berriak ditugu. Erantzun berriak behar ditugu. Arazoak, arriskuak eta mehatxuak handiagoak izanik, handiagoak behar dute euskaltzaleon ahaleginak, erronkak eta ausardiak ere. Jauzi kualitatibo baten premian gaude. Euskerak, hogeita batgarren mendean bizitzeko moduko etxe bat behar du Durangon eta etxe hori eraikitzea goaz.

# Antzokia ekarpen garrantzitsua izango da euskararentzat

**B**eñat Gaztelu-Urrutia dogu Kafe Antzokiaren arduraduna. Urrian hartu eban ardura hori eta burubelarri dabil antzokia eraikitzen hasteko prestakizunetan.

● *Noiz hasiko gara Kafe Antzokia eraikitzen?*

Lanak martxo aldera martxan egongo dira la pentsetan dogu. Izan be datorren



abendurako amaituta euki gura dogu. Eraikitzen hasi aurretik hiru-lau gauza ondo lotu beharra dago, horretan gabiz momentu honetan.

**Partizipazioa eskuratzen dauana akzionista izango da**

● *Ze gauza?*

Hainbat kontu dagoz lotu beharrekoak, baina garrantzikoena finantziarioa da. Milioi bat euro batu behar doguz. Horretarako sortu dogu Kafe Antzokia S.L., eta partizipazioen bidea zabaldu. Bost mila jarri doguz jendearen eskura bakoiza 200 -tan. Partizipazioa eskuratzen dauana akzionista izango da, partizipazio bakotzagatik %5eko dibidenduak jasoko dauz bigarren urtetik aurrera, eta bosgarrenetik aurrera jarritako dirua berreskuratzeko aukera izango dau.

● *Bost mila partizipazio ez da asko?*

Bai, asko da. Baina euskalgintzan egiteko dagozanak be ez dira giti, eta Durangaldeko euskaldunok ondo dakigu zeintzuk diran behar horiek. Kafe Antzokiaren sorrera ekarpen garrantzitsua izango da euskalgintzarentzat. Benetan eragile era-

ginkorra izango dalakoan gagoz eta ekarriko dauskun onuraren hainbeste ahalegina egin behar dogu guztiok proiektu hau aurrera atarateko.

● *Zelakoa izan da orain arteko erantzuna?*

Erantzuna ona izan da. Gogoratu hiru hilabete baino ez dagoaguzala partizipazioak egiten, eta dagoeneko 200.000 € inguru batu doguz. Halan be ez da Kafe Antzokia eraikitzeko nahiko diru. Partizipazioak eskuratzeko epe-mugarik ez dogu jarri, baina egiteko asmoa daukanak ahalbait arinen egitea ezinbestekoa da, martxoan bertan eraikuntza lanetan hasi gura dogu-eta.


**Euskararekin sentsibilizatutako jendea da etorri dana**

● *Ze jende mota etorten da partizipazioak eskuratzera?*

Mota guztietako jendea hurreratzen da, helduak zein gazteak. Esango neuke euskararekin sentsibilizazio apur bat eukitea nahikoa arrazoi izan dala partizipazioa eskuratzera etorteko. Kafe Antzokia edonorentzako moduko lekua izango da, hori oso ondo ulertu dau jendeak.

● *Eta Berbaroko bazkideak?*

Berbaroko bazkideak esateko asko daukie guzti honen inguruan. Ondino ezer aurreratzeko goiz bada be, orain arteko proiektu guztietan egin dabe-



## Berbaroko bazkideak oraingoan be euren babesa emongo dabe

en moduan oraingoan be euren babesa emongo dabeela pentsetan dot.


### ● *Zelan hartu dabe proiektua beste erakundeek?*

Erakunde publikoetan be laguntasuna eskatu dogu. Momentuz ez dogu erantzunik jaso baina harrera ona egin dauskue. Durangaldearentzat onuragarria dan gune barri bat izango da Kafe Antzokia eta Durangoko Udalean bertan be begi onez ikusten dabe egitasmoa.


## Durangaldearentzat onuragarria izango da gune barri hau

Bestalde, aipatzekoa da + Dendak argitaratu daben azken aldizkariaren editorialean, Elkarte horretako Zuzendaritza Batzordeko ostalarien ordezkaria den Rotdgr Dearman-ek adierazi ebana: "proiektu hau Durangoko ostalaritzarentzat ez ezik, oror komertzio guztiarentzat onuragarria izango da".


# Berbaroko bazkide honeek akzionista egin dira



Emilio  
Garcia




Nere  
Mujika




Mikel  
Preguntegi




Maite  
Agirre



Alberto  
Errazti



Ramon  
Zarandona




Igor  
Elorza

... eta  
zu?

# Kafe Antzokiaren egikaritza proiektuak aldaketa batzuk izan ditu azken hilabeteetan

Jakingo duzuen moduan, Erakustazoka eta Kafe Antzokia hartuko dituen zonalde berri osoaren oinarriko proiektua MECSA izeneko arkitekto enpresak burutu du. Hasierako asmoa hiltegi zaharrari alboan eraikuntza berri bat gehitzea bazen ere, orain dauden lau hormak zabaldu eta Antzokiaren eraikuntza osoa bertan sartzea egokiagoa dela iritzi diote horretan diharduten teknikoei. Hona hemen kanpotik eta barrutik izango duen itxura.



- Lau metro zabaletara eta beste lau luzetara gehituko zaizkio gaur egun dagoen egiturari.

- Harria eta egurra nahastuta jantziko dugu kanpoaldea, gaur egungo leiho eta ateen marrazkiak harriz-harri mantenduta.

**Antzokiak adin eta gustu guztietarako guneak izango ditu**

- Eguraldi ona dagoenean mahaiak eta aulkiak jarriko dira kanpoan arratsalde iluntzeak koadrilan eta patxadan pasatzeko.

- 650 m<sup>2</sup> izango ditu beheko solairuak. Horretatik 70 m<sup>2</sup> eskenatokiarenak izango dira eta 30 m<sup>2</sup> sarrerarenak.

- Sotoak 600 m<sup>2</sup> inguru izango ditu eta zerbitzu guztiak bertan kokatuko dira: komunak, kamerinoak, sukaldea, bulegoak, biltokia...

- Lehenengo solairua anfiteatroa izango da eta 250 m<sup>2</sup> izango ditu.

- Hiru barra izango ditu: nagusia sartu eta eskumatara, eta beste biak bata eskenatokian eta bestea anfiteatroan.

- Ikuskizunak mailarik gorenean gozatzeko moduko soinu eta argi ekipoa izango ditu: 8.000 wattio soinu eta 48.000 wattio argi

